

MARIA, KATALUNIAK PLENO BEREZIA BEHAR DU

Historia ez dugu politikariok egiten, historia herriek egiten dute. Akaso horregatik maiz harrapatzen gaitu politikariok despistaturik edota uzkur datorrenaren aurrean. Beti pauso bat atzetik.

Katalunian bizi den egoerak tamainako erantzuna eskatzen digu guztioi. Herri batek erabaki nahi du ezohiko baldintzatan, itsu eta gor egon nahi duen Madrilek ez diolako utzi beste aukerarik. Elkarrizketa eskatu dute kataluniarrek urte luzez eta mespretxua jaso dute bueltan. Orain, erabakitzea eskatzen dute eta errepresioa jasotzen ari dira. Ondo ezagutzen dugu zertarako gai den Estatua eta kezkatu egotea da logikoena.

Etorkizun hobea nahi dute kataluniarrek, guk ere bai. Kataluniarrak demokratikak dira, baita gu ere. Anai-arreba ditugu askatasun eta duintasunean. Ez dugu ahazten nolako erantzuna eman zen Katalunian esaterako Egunkaria itxi zenean, hori elkartasun eta babes!

Aurreko astean EH BILDUren kontzentrazioan izan zinen, plazan. Eskertzen dizugu keinua. Oraingoan gu gara zure alboan egon nahi dugunak herritarren babesarekin Kataluniari merezi duen elkartasuna eskainiz.

Urriaren 3a berandu izango da.

Pasa den ostiralean Oñatiko udalbatzak eta herritarrek Lluís Llach-en L'estaca elkarrekin abesten amaitu zuten plenoa. Ezin dugu Arrasaten ere L'estaca abestu guztiok elkarrekin?

Eneko Barberena Mondragon

EH BILDUko bozeramalea Arrasateko Udalean